

Mihiluze jolasa

Eraman etxera telebistako lehiaketa

Tlbtoko prgrm gstko dzu? Hau da, telebistako programa gustuko duzu, baina lotsa ematen dizu parte hartzeak? Ez kezkatu, orain badaukazu *esamesak*, *potokumeak*, *eroglifikoak* eta saioko beste probak etxera eramateko aukera.

Familia eta lagunekin, erakutsi zein den benetako mihiluzea.

MIKEL GARCIA

BA AL DAKIZU nola esaten den leloa Ultzaman? Eta zer maite duten Pirritx eta Porrotx pailazoek pila, pila? Bertsotan abilena zu al zara?... Mihiluzea zarela frogatzeko garaia iritsi da, eta etxeko sofatik altxa gabe egin deza-kezu: Mihiluze mahai jolasa eskura daukazu dagoeneko.

Hizkuntzarekin berarekin jolastuz dibertitzeko modu bikaina da *Mihiluze* telebista saioa eta jarraitzaileen fideltasuna handia da; telebistan daraman epean arrakasta lortu du euskal ikusleen artean. Konbinazio bikain

hori mahai jolas bihurtzeko asmoz, ARGIA JOLASAK-ek eta EiTbK elkarlanean ateratako lehen jokoa da hau.

Zakua bete sari

Bakarka, bikoteka edo taldeka lehiatu daiteke. Taularen hasieran, Brok kamaleoia dagoen lekuan, partaideek peoi bana jarri beharko dute eta probak gaingiduz mihian aurrera egi-tea izango da helburua. Helmugan jartzeko zakutxoa darama jolasak. Eta zer sartu zakutxoan? 500 euroko billetea, gozoki bat, afari baterako txartela, ilerako goma bat... Edozer gauzak balio du, taldekideek aukeratutako oparia izango da sari nagusia.

500 euroko billetea, gozokia nahiz afarirako txartela lortzeko, lehenengo postuan iritsi behar dugu helmugara. Eta ibilbidean aurrera egiteko, hainbat proba gaingiditu beharko ditugu; zenbat eta erantzun zuzen gehiago eman, azkarrago egingo dugu bidea, lortutako puntu bakoitzarengatik borobil bat aurreratuko baitugu peoia. Gaingiditu beharreko probak ezagunak dituzu dagoeneko, telebista saioko berdinak baitira.



- ✓ Jolasa: Mihiluze
- ✓ Adina: 8 urtetik gora.
- ✓ Edukia:
 - Potokumeka (100 txartel)
 - Bixkor-Bixkor (50 txartel)
 - Eroglikoak (100 txartel)
 - Tribuaren berbak (100 txartel)
 - Zer da zer? (50 txartel)
- ✓ Prezioa: 33 euro. Argiako harpidedunentzat %15eko deskontua.
- ✓ Eskakerak: 943 37 15 45; denda@argia.com, www.argia.com/mihiluze



Probarik proba

Kaxan, minutu bateko iraupena duen hareazko erlojua aurkituko dugu. Erloju horretaz baliatuz, kolore bakoitzari dagokion proba egin beharko dugu. *Tribuaren berbak* proban, esaterako, gure hiztegia aberastu ahal izango dugu, txontxa, bluia, pintoa edo aletxa bezalako izenak zein definizioekin lotzen diren asmatuz. *Bixkor-bixkor* ariketan berriz, azkar asko aritu beharko dugu: Zeintzuk dira erle langileak, arrak ala emeak? Nola deitzen zaio ezpatak erabiltzeko teknika eta kirolari? Jokoan aurrera egiteko horrelako bost galdera asmatu beharko ditugu.

Esamesen atalean, pertsonaia ezkutua asmatzeko sakelako mezuekin dugun trebezia erakutsi behar da: znbt smatzko gai zr? Lauki horian eroriz gero, burua erabili beharko dugu txarteletako

irudiak, hizkiak eta elementu desberdinak uztartuz *eroglikoaren* esanahia aurkitzeko. Eta bertsoak ere ez dira falta: potorik egin gabe, bertsoa osatu behar da *Potokumekak* proban, falta diren puntuak asmatuz.

Azkenik, ibilbidearen amaierara iristen den lehen jokalaria *Zer da zer?* proba gainditu beharko du zakua eskuratzeko. Minutu bateko denboran, zazpi hitzak dagozkien hiru multzotan egoki banatzen dituen izango da txapelduna. Erraldoi, Nobita, Txopinko, Ash, Shizuka, Pikatxo eta Suneo jakingo al zenituzke Doraemon, Pokemon eta Dotakon multzoetan banatzen?

Brok kamaleoiaren tankerako mihia atera eta ekin hizkuntzari ahalik eta zuku gehien ateratzeari. Zakua zurea izango da! ■

DANI BLANCO

